

Sendagai generikoekin denok hobeto

Sendagai generikoak markako jatorrizkoen baliokideak dira. Printzipio aktibo bera daukate, farmaziako forma bera dute, eta kalitate, segurtasun eta eraginkortasun berberak.

Sendagai generikoak konfiantzako sendagaiak dira, merkatuan gutxienez 10 urtean daramatzaten markako kide jatorrizkoak baitauzkate erreferentziarako, eta beraz eraginkortasun terapeutikoa aski frogatua dute.



Informatu:
www.medicamentosgenericosefg.es

Sendagai generikoak Hobeto zu. Hobeto denok.



Eraginkortasun, kalitate eta segurtasun berbera dute.

Informatu:
www.medicamentosgenericosefg.es

Sendagai generikoak.

Farmaziako Baliokide Generikoa: EFG

Sendagai generikoak identifikaerrazak dira, ontzian ageri den izenak EFG siglak dauzkalako (farmaziako baliokide generikoa, gaztelaniaz).

Normalean, printzipio aktiboaren izena hartzen dute (osaera), ondoren farmazia laborategi fabrikatzailearen izena eta EFG siglak.



Sendagai generikoak eraginkorrek dira

Jatorrizkoaren aldean, sendagai generikoak:

- Printzipio aktibo berberak dauzka.
- Farmaziako forma bera (konprimatua, isurkaria, pomada, etab.) eta hartzeko bera ditu (ahoz, injektagarria, etab.).
- Kalitate baldintza berberak betetzen ditu.



Hobeto zu.

Sendagai generikoen kalitatea

Sendagai generikoek markako jatorrizko sendagaien kalitate kontrol berberak pasatzen dituzte. Hau da, baimena lortzeko eta ondoren merkaturatzeko, Sendagaien eta Osasun Ekoizkinen Espainiako Agentziak eta gizakiak erabiltzeko diren fabrikazio industrialeko sendagai guztiei eskatzen dizkieten beharkizun guztiak betetzen dituzte.



Zergatik aurrezten da sendagai generikoekin?

Sendagai generikoek prezio apalagoa dute, jatorrizko sendagaiaren ikerketa eta sustapen kostuak salneurrian sartzen ez direlako.

Prezio merkeagoa duenez, bi aldiz aurrezten dugu: batetik, Osasun Sistema Nazionalak, aurrezkie bestelako osasun baliabideetarako erabil dezakeelako, eta, bestetik, hiritarrek beraiek, prezio merkeagoa ordaindu behar dutelako.



Hobeto denok.

Sendagai generikoak seguruak dira

Gainera, sendagai generikoek esperientzia kliniko zabalaren abantaila dute, printzipio aktibo horiek denbora luzean baitaude merkatuan.

Horregatik guztiagatik, sendagai generikoa sendagai:

- Eraginkorra.
- Konfiantzako.
- Kalitatekoa.
- Degurua.
- Identifikaeraza da, eta.
- Hiritarrari eta Osasun Sistema Nazionalari dirua aurrezten dio.



Sendagai generikoekin gure osasun sistema hobetzearen alde egiten dugu.

Sendagai generikoak seguruak dira, eta horiek erabiltzea denontzat onuragarria izango da

Informatu:
www.medicamentosgenericosefg.es



www.mspsi.es